NARBAIZA

– ARABA / ÁLAVA –

Narbaxa Donemiliaga udalerriari dagokio, Aguraingo kuadrillaren barruan. Barrundia haranaren ekialdean dago, Urkilla mendilerroaren hegoaldeko azken mendietan. Gasteiztik 23 km ingurura dago. Hiriburua Elorriagako ataritik utzi behar dugu, eta, ondoren, N-104 eta N-3012 errepideak hartu behar ditugu.

Narbaxa 1025. urtearen inguruan ageri da dokumentuetan, Donemiliaga Kukullako botoari ekarpena egiten zioten herrixken zerrendan. Une horretan, herri hori inguruetan biztanlerik gehien zuenetakoa zen, Errioxako monasterioari urtean bi golde-burdina ematen zizkion eta. Zifra hori, Alfoz de Barrandiz izenekoaren barruan, Arriolak eta orduan herrixka eta gaur egun eremu hustua den Ulak soilik berdintzen zuten. XI. mendean, zehatz esanda, 1060. eta 1071. urteetan, leku hori berriro ageri da, bi dohaintzetan bi lekukoren abizen toponimikoak osatuz –*Narbaiza* eta *Naruayxa*–. Lehenengo dohaintzan Ulako eliza Iratxe monasterioari laga zitzaion; bigarren dohaintzan, Albizuko Halmoda San Juan de la Peña monasterioari laga zitzaion.

Narbaxaren bizitza historikoan, beste kapitulu garrantzitsu bat Barriako monasterioarekin etengabe izandako desadostasunak eta auziak dira. 1237. urtean, monasterio zistertar horretako abadesak, Toda Enekoezek, herriarekin auzia izan zuen monasterioaren berezko herri-lurrei buruz, Lope Díaz de Haro Bizkaiko jaunak emandako epaia dela bide. Auzi horiek XVI. mendean ere iraun zuten eta gaur egunera arte egon dira indarrean. Jerónimo Aznar Kalagorriko gotzainak 1257an egindako zerrendan herri hau ageri da, hamarrenak Kalagorriko kabildoari ematen zizkiolako. Zerrenda horretan *Naruayxa* izenez ageri da. Narbaxak inguruko herrien aurrean izandako indarra 1292an berriro ageri da, Tarifako setioari laguntzeko 530 marabedi eman zituen eta. 1332ko apirilaren 2an, Narbaxa, beste hamalau herrixkarekin eta bi eremu husturekin batera, Agurain hiribilduarekin lotu zen, Alfontso XI.a Gaztelako erregeak emandako mesedea dela bide.

1556an, Gil lizentziatuak egindako bisita pastoralaren arabera, elizan lau apaizek zerbitzatzen

Pertenece Narbaiza al municipio de San Millán / Donemiliaga, cuadrilla de Salvatierra / Agurain, y se encuentra en el arranque oriental del valle de Barrundia, en las últimas estribaciones hacia el sur de la Sierra de Urkilla. Distante unos 23 km de Vitoria-Gasteiz, se llega a la localidad abandonando la capital alavesa por el portal de Elorriaga y continuando por las carreteras N-104 y N-3012.

El amanecer documental de Narbaiza tiene lugar hacia 1025, en la nómina de aldeas contribuidoras al Voto de San Millán de la Cogolla. En esos momentos esta localidad es una de las aldeas más pobladas de los alrededores, al aportar dos rejas anuales de tributo al monasterio riojano, cifra que, dentro del alfoz de Barrandiz al que pertenecían, únicamente igualan Arriola y la entonces aldea y actualmente despoblado de Ula. En este mismo siglo XI, en los años 1060 y 1071, se recoge de nuevo este lugar formando parte de los apellidos toponímicos –*Narbaiza* y *Naruayxa*– de dos testigos con ocasión de dos donaciones. En la primera se habla de la cesión de la iglesia de Ula al monasterio de Irache, la segunda se refiere a la entrega de Halmoda de Albizu al de San Juan de la Peña.

Otro capítulo importante en la vida histórica de Narbaiza lo constituyen las constantes diferencias y pleitos sostenidos con el monasterio de Barria. Así, en el año 1237 la abadesa de este monasterio cisterciense, doña Toda Iñiguez, pleitea con la localidad sobre los ejidos propios del monasterio, por sentencia dictada por Lope Díaz de Haro, Señor de Vizcaya. Estos litigios continuaron en el siglo XVI y han permanecido vigentes hasta nuestros días. En la relación formulada por la Carta del obispo calagurritano Jerónimo Aznar, en 1257, aparece esta localidad por su aportación de los cuartos decimales al Cabildo de Calahorra, y lo hace con el nombre de *Naruayxa*. La pujanza de Narbaiza entre las poblaciones circundantes se refleja de nuevo en 1292, en la importante cantidad de 530 maravedís que entregaba como ayuda al cerco de Tarifa. El día 2 de abril de 1332, Narbaiza, junto con otras catorce aldeas y dos despoblados, se anexiona a la villa de Salvatierra, por merced dada por el rey castellano Alfonso XI.

zuten, eta bi bertan bizi ziren. Lau ermita zeuden, baita ospitalea ere. XIX. mendean Narbaxa Lehenengo Gerra Karlistak eragindako gertaera batzuetan murgilduta egon zen. 1834ko martxoan, herrira Nafarroako tropak eta Zumalakarregi jenerala iritsi ziren, Gasteiz hirian egindako erasoaren ostean, Nafarroarantz zihoazela.

En 1556, según consta en la visita pastoral realizada por el licenciado Gil, servían a su iglesia cuatro clérigos, dos residentes en ella. Tenía cuatro ermitas y contaba con un hospital. En el siglo XIX Narbaiza se vio envuelta en algunos de los acontecimientos provocados por la Primera Guerra Carlista. Así, en marzo de 1834 la localidad acogió a las tropas navarras y al general Zumalacárregui, después del ataque que realizaron contra la ciudad de Vitoria y en su retirada hacia Navarra.

San Esteban eliza / Iglesia de San Esteban

GAUR EGUNGO tenplua XVI. mendekoa da. Elizak hartzen duen orube berean gotorleku zahar bat egon zen, Barrundiako lurrak defendatzen zituena. Aurretik, herrian tenplu erromaniko bat egon zen, eta horretatik xake itxurako inposta zati bat kontserbatzen da, iparraldeko horman sartuta.

Bataiarria Behe Erdi Aroko adibide ederra da. Aska goiko ertzean arkuteria batekin dago apainduta, eta, erdialdean, gazteluak, izarrak eta beste osagai geometriko batzuk irudikatzen dira, urruneko eragin mudejarrak eta herriko apaindura-gaiak bateratzeko joerari erantzunez. Oina, lau angeluko ebakidurarekin eta angeluetan zutabe

EL ACTUAL TEMPLO, erigido en el siglo XVI, se encuentra situado en el mismo solar que ocupó una antigua fortaleza, defensa de las tierras de Barrundia. Anteriormente hubo en la localidad un templo románico del que se conserva un fragmento de imposta ajedrezada, incrustado en el muro norte.

La pila bautismal es un bello ejemplar del bajo medievo. La copa se ornamenta con una arquería en su borde superior, mientras que en el centro se representan castillos, estrellas y otros elementos geométricos que responden a la doble tendencia ornamental de conjugar remotas influencias mudéjares con temas decorativos populares. El pie,

Bataiarria

Pila bautismal

modura lau baketoi dituela, gainjarritako arkutxo itsuekin apaindutako basamentuan oinarritzen da.

Testua eta argazkia: MPGH

de sección cuadrangular, con cuatro baquetones a modo de columnas en los ángulos, se apoya sobre un basamento cuadrado decorado con arquillos ciegos superpuestos.

Texto y foto: MPGH

Bibliografia / *Bibliografía*

Bilbao López, G., 1994, pp. 37-40, 127; López de Guereñu, G., 1962, pp. 247-248; Portilla Vitoria, M. J. *et alii*, 1982, pp. 602, 605, fig. 537.